URRILLA 17 ASTARTIA

BILBAO 1933

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bibao'kua ... ... 6,00 Irko. Iru ilez
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.508 zenkakija

EGUNEKUA

¡Batasuna...!

¡Batasun-ixen au auteskundiak etxe-inguru-rantz uferatuten asten yakuzan bakotxian entzuten doguna da.

Eta batasun itz au geyen erabilien dabenak, karlatafak, albontsatafak eta eurai endo yatofkenetan "katoliko" undijenak baño be mala batzuk gorago agertuten dirau españa-zaliak dira.

卐 卐 卐

Oneik, eskotafen batasunari deika dabiltzan españaf eta españa-zaliok, auteskundiak etxetik ufun egon ixan diranetan, batasunatzaz gomutau be eztira egifen ixan, irañik geyen egin, eta miñik aundijena emongo dauskubezan edendun eztenkada zofotzakaz zaurituteko eretijak asmetan iñardu baño.

Auteskundiak uferatu diranian, baña, iñoiz iraindu ez-pagendubezan lez, batasunera defuten asi dira.

¿Zetarako? ¡Zetarako!... Gure laguntasuna bide dala aldun ixatiafen...

卐 卐 卐

Jeltzaliak baña aldun ixatia baño gafantzi aundijagoko gauzarik bai-dauke. Euzkotafai Madrid'ko aldun ixatia baño, Euzko-Araudija garale ataratia beñaukua yake, ba, ta bai gafantzi aundijagokua be.

Eta alan biafez, Araudi-arazo au, oinguan, aldun-arazua baño egun batzuk lenago datofana da.

Zorijoneko gara, Euzkadi'ko eskotaf gustijak Euzko-Araudi'pian batuta geratzeko berau baño ereti obarik eztogu ixango-ta.

Araudi au garale atarateko batu gura ezpa-dabe, eztira batasun-gura ixango, Euzkadi'ren kaltez Madrid'en aldun ixan gura baño.

Eta onetarako batasuna egifia, geure burubak efetako egufak sutaratutia ixango litzake.

Ceu efetako egufak sutaratuko dauzan batasunik, bafiz, guk eztogu gura, ezta "España katolikeak" done ixenagaz defuko leuskigula jakinda be.

Euzkadi'ren kaltezko batasunik ez irakufle, ¡ezta ezegatik be!...

卐 卐 卐

Igazi dan igandian, Madrid'en, azilan 19' gafeneko auteskundiak dirala-ta, itzaldi zaratatsu bi ixan ziran.

Bata, Maura efkaltsein ixan zanarena ixan zan. Bestia, bafiz, Gil Robles lugin-alderdiko aldun ezagunarena.

Oneik bijok, eskef ta eskoi, españafak dira-ta, euren itzaldijak be España-erazkuak ixan ziran.

Mikel'ak egifen eban suba, bere opilarentzako zan. Eta Gil Robles'ek egiten ebanak be, auzokuarenik ezeban berotuten bere opiltxuba baño.

Maura'k iñuanez gixonaren bulafaren antzian, eskef-eskumako beso bijen erdijan aufkitzen da. Eskefeko aldetik, efiiak agintpidetik jaufti dauzan alderdijak eukazala, iñuan, ba, ta eskumako aldetik ostera, karlatafak, fasziotafak eta efi-ekintzafak.

Oneik gustijak gotik dirala osotuten dan Jaufdija—epatu eban, azkenez—jaufi eziñeko Jaufkija da.

卐 卐 卐

Gil Robles'ek, ostera, gauzak, beste era batera ikusten dauz. Onek, eskotaf gustijen batasuna gura dau, efitz batetik asi ta beste eftzera bitafteko eskoi mueta gustijen batasuna.

卐 卐 卐

Naste onetan, karlatafak be saftu leikez, "faszio" ta efi-ekintzakuak be bai... ¡Nasteru gustijak!...

Gil Robles'ek naste onen "saltziaz" jaditsi gura dauna auxe da: "Una España libre de asesinos y separatistas." ¿Bai ete?

卐 卐 卐

Gil Robles españafak, "separatistas" ¿zeri defuten ete dautsa? ¿Euzkotafok, españafen eta frantzetafen bustafipetik azkatu gura ixatiari?

Euzkotafon bidezko gurari oneri, Gil Robles'ek "separatista" defuten ba-dautsa, gixon ori uste txafaz dabilala esan geinke, edo zentzuna etxian lagata dabilala.

Euzkotafon banantzaliak, gu, barik, eurak dira, ba: Frantze ta España.

Frantze'k, Laburdi, Zuberoa ta Benabafa, Euzkadi Amea'gandik banandu, ta bere jopu biguftu ezebazanik, iñok ezin esan ixango dau.

Eta España'k, be, urte batzuk geruago, Araba, Gipuzkoa, Bizkaya ta Nabafa'gaz beste arenbeste egin ebana, ikastola-umiakañoko gustijak dakijen edestiko egija da.

Edestijak guzuftiiuten ez-pagauz, ba, "separatistas" defu biaf yaken Lateftjak, Frantze ta España'ren Lateftjak dira, gu sagpi euzko-anayok atal bifan zatituta, geure benetako Euzkadi Amea'gandik banandu, ta France ta España'ren otsein eta jopu egin gindubezalako.

Beraz, "separatistas", banantzaliak eurak dira. Gu ostera, batzaliak, Euzkdi Ama bakafaren magalpian batuta bixi gura dogunak.

Gil Robles edo dalako ofek, euzkotafoi-ta "separatistas" defuten jafaitzen ba-dau, jafatu, jeltzaliokandik laguntza gitxi ixango dabela uste dogu.

卐 卐 卐

Azilan 19'gafena baño, lenago, azilaren 5'kafena dogu, irakufle.

Egun au, guretzat, euzkotafontzat, gafantzi aundiko eguna ixango da. Azilan 5' kafenak, esango dausku, ba, azilan 19' gafenan zer ixango dan.

Aldunak Madrid'eratuteko batasuna baño, guretzat, euzkotafontzat, Euzko-Araudija garale atarateko, batasuna, beñagokua da.

Batasun onetarako entzun-gof egin, eta etxian geratuten diranak, gure ereyuak ixango dira. Onei, azilan 19'gafenan, geuk, be, entzun-gof egingo dautsegue... ¡Bai bein!

URIBIFAŔTE'TAŔ IBON

Edubige deuna, alarguna

Amabigafen eundian jayo zan Edubige. Efegegayen jatofikoa zan; Bertolda efegayaren alaba. Ez eben, ofatio, gastearotik sendi-bafuan ikusi eban dirdaitasunak aren burua zoratu. Ondasunera biziki makurtua etofan txikitandik. Eleiz-liburuetara ta eleiz-otoyetara zaletu zan.

Amabi ufteko gastetxo samufa zala, ezkondu-arazi eben bere gurasoak Endika efegegayakin. Ezkondu zaneko, senafaren naya ixilean betzetzen oitu zan lenegoztik; aren gogora jartzen zan edozein arlotan. Emaztearen ondasunak aizatuta, Endika, efegegayetan Kisto-zalienetakoa ta elizkoyenetakoa izan zan.

Iru seme ta iru alaba izan zituen. Amak bere ardurapean azi zituan danak. Seigafen semea jayo yakenean, afigafizko eskeintea egin eutsoen senaf-emazteak Jaungoikuari: auferantzean garbitasun-bizitza egitea. Ain zuzen be orduezkero auferakuntza aundiak egin zituen ondasun-bidean.

Jaungoikuari eutson maitasunak aizatzen zituan Edubige'ren egite gustiak. Umezurtzen, emakume alargunen eta beaftsuen amatzat jotzen eban bere burua. Bere emaztearen eskariari gogoa makurtuz. Treinitz'en lekaimetxe ospatsu bat egin eban Endika'k eta aberastasunez inguratu. Cister'ko lekaimien ardurapean ipiñi eban etxea. Jaungoikuari burua opaldu nai eutsoen emakume alargunentzako eta anderetxoentzako bizitokia izan zan lekaimetxea. Geroago Edubige'k berak diru geyago emon eutsen lekaimeai eta laguntza onen bitaftez mila notiñeraño biltzen ziran etxe aren babesean. Edubige beraren alaba bat zan Lekaime-buru.

Ez eban izan egundo apainkeriaren eta dirdaitasunaren afokeririk. Garbitasun-eskeintea egin ebanez gero, areagotu zan gai onetan. Lekaimetxean egon oi zan geyenean lekaimeakin bat eginda. Gero, bafiz, senafaren baimena lortuaz gero, lekaime-jantziz janzten zan; baña lekaimien eskeinteak egin barik. Lekaimeai al-eban laguntza gustia emoten eutsen. Ara zer inotzen berak: "Zuek Josu'ren emazteak zarie; zuen otsein eta serbitzari izatea dagokit niri". Otordukoetan, eleizan eta alde gustietan azkenengo malan jartzen zan.

Josukisto'ri eutson maitasunak eraginda, aren aintzan laztasun eta neke aundiak ezartzen eutsozan bere buruari. Gastea izan afen, buruari emotsozan ildurak, oro auldu eutsoen soña. Barauf egian egunoro: ez eban jaten iñoiz okelik.

Igandietan, astaftetan eta egunetan esnea ta afaña bakafik jaten eban; astelenetan eta larunbatetan babafunak; eta eguaztenetan eta barikuetan, bafiz, barau osoa: ogin ta ura baño ez. Iru orduko loa egiten eban; ez, ofatio, oe gañean; lasto-gañean baño. Goiz-otoyetara jagi ezkero, etzan geyago oeratzen. Neke ta ildura oneik oro auldu eben emakume indarge onen soña. Azuf utsezkoa zirudin argalaren argalez.

Edubige'ren senafaren saletan sartu zan indafez Konrad, Kirne'ko dukea. Ari eskua egotziz, baitu, ta eroan eban. Bere senafa azkatzeko ordain-eskeinte aundiak egin eutsozan Edubige k dukeari; baña alpefik; ez eutson jaramonik egin eta giltzapean jafi eban Endika.

Au zala-ta, giltzapetuaren seme nagusiak gudarozte aundi bat gertu eban. Indafez kendu nai, alegia, bere aita arerioaren atzamafetik. Baña guda onetatik sortu beaf ziran eriotz eta triskantza izigafien gogoratzeak eraginda, Edubige bera aurkeztu zan Konrad dukearengana. Onek emakume bigun eta deun a bere aufean auspez ikusi ebanean, jatofitik ekafan basatitasuna aldendu eban eta goi-bildufak makurturik, emakume arek eskatu eutson dana bayeztu eban.

Andik lastef il yakon senafa Edubige'ri. Treibnitz'ko lekaime gustiak zotinga ta negarka artu eben aren eriotza. Emazteak, baña, adoretsu iraun eban zorigaitzaren azpian ara zer iñotsen areiri: "Buru-makuf artu beaf dogu beti Jaungoikuaren naya". Geroxeago il yakon, bafiz, seme zafena. Zio onetan be argiro erakutsi eban emakumeak bere biotzeko adore bakana.

Alatz asko egin zituan Edubige'k bizitza-bitaftean eta, gañera, gerokoen igarle izan zan. Egunaz aufetio igafi eban zein izango zan bere azken-eguna eta afetaz gertu zan eriotza buru-makuf artzeko. Aftean, osasuntsu egoala, aftu zituan ikurtonak. Alaere, lastef igafi eben danak lastef etofkiola azken-ordua. Ain zuzen be, ikurtonak artu ondoren gexoaldiak jo eban eta bigunki, gotzon baten arnasaldiak aizatu izan ba'leu lez, il zan 1243'gafen uftean.

Trebnitz'ko ildegian obiratu eben aundikiro deun onen gorpua. Andik aufera safitan erakutsi eban Jaungoikuak bere indafa, ilobi-ondoan, alatz ugari ta afigafien bidez.

Andra Miren'en irudi bat eskuetan ebala il zan eta ezin izan eutson iñork irudia eskutik kendu il zanean be. Ain sendo itsatsi yakon esku-azpian. Urte asko igaziaz gero, ilobia edegi eben bein, beste toki batera soin-ondafak aldatzeko. Ilobia zabaldu ebenean, lufin gozo bat zabaldu zan inguruan. Artean esku-txatalean lotuta eukan Andra Miren'en irudia.

A.'TAŔ T.

IZPAR URTENENAK

Atso zarra atxillotu.-Talka bat.-Beltran'en ibillerak.-Oloriz eta Laiseka'ren eztabaidea gebenduta.-Jagi-Jagi'ko auzijak.-Gipuzkoa'ko izparrak.-Uarte zanaren oroimenez.-España'ko gora-berak

Jagoba deunaren eftxadon-aufian atsotxu bat atxilotu eben eskian egualako. Eunda iru urte eukazan gaxuak eta Santander'kua zan. Mena-Efuki etxera eruan eben.

Euzko-Araudijatzazko auteskundiak laster doguz. Datofen ilaren boskafenan. Ori dala-ta zabalgunderako irurogei mila laufleko eralgiko dira. Izpafingi geyenak gai ofetzaz iafdun dira.

Miraflores deritxan aldazkoran gufdibil bik talka galanta egin eben. Bafuban etofi zirenetatik saspi zauriz geratu ziran. Ukaldi batzuk baño eztira ixan eta ondorengo tqafik eztabe.

Gorlitz uritxuban dagon gexotetxera be ziñea ta ifatija bidaldu dabez. Aldundi-ixuneko lendarijak esan dauskunez umiak alai bixi dadixantzat olako tramankulubak biafekuak dira.

Beltran'daf Simon aldun-ixuna Madrid'era juan da, Bizkai'ko olaetan dan lan-ezari bide-onik aufkitu leuskijon-edo. Sorkalde-aldeko ola bati emon dautsezan lan ugarijak onantza bidaldu dagijezala eskatuko ei-dau.

Galano jaunak aginduz agindu dautso Oloriz'eri, orain afteko eztabaida gofija alde batera itxi dagijala. Laiseka'ren aufka dagozan gauzak aldundi-ixunak bera aterako dauz, otseñak ofetan ibili-barik.

Afinda eguraldi-igafliak dirauskunez zantzubetan igafi dau aste au eztala ona ixango. Erdirantza eguraldi txaf-txafak eukiko doguz.

Afiaga-enparantzan geratuten diran Afatia-Bilbao-Durango'ko tximispufdijai beste geltoki bat emongo dautse, enparantz ofetan eragozpen laf jaften dabelako. Oindiño eztakigu noruntz eruango dabezan.

Uarte osagile ospetsu ta gixonik aipagafijena ixan zan euzkotafa'ren oroiz, oroimen jai batzuk ixan dira Iruña'n. Marañon jaunak itzaldi edefa esan eban euzko-seme onen oroiz. Nabarra'ko agintarijak buru zirala ibilkunde edefa egin zan eta Taconera eguraztokijan oroigalu galanta erakutsijan jafi eben. Orduña jaunak egiña da oroigalu ori.

"Jagi-Jagi" asterokuan agertu zan idazki baten etofi ziran itzai erantzuna emoteko auzi-etxera juan zan atzo Galastegi'taf Eli abeftzale gorengua. Kareaga'taf Jon Andoni latari punterenguak aldeztu eban. Ondo baño obeto itz-egin eban erru-barik an jezafi zanaren aldez. Azke-itxi dautse. Zorijonak Eli adizkidiari.

Getxo'ko Euzko-Langilak jayegun egin eben igandian euren bazkuna sortu zanezkeroztik urte osua igazi yakelako. Bastefa, Jauregi eta Etxabe jaunak itz-egin eben langilacn arazuak atzalduz.

Donostia'ko sosolistuen alderdijak ixan daun batzaf orokofan erabagi gafantzitsuba aftu dabe. Beste alderdijakaz batuta eztira agertuko oraingo auteskundietan, eurek bakafik baño.

Efadikalak be euren batzarra egin eben. Aldundi-ixunetik urten ziran jafleku gitxijegi emon eutselakuan, baña orain bafiz aratu dira. Auteskundietan beste efkaldaf alderdi gustijakaz batuta juango dira, sosolistuak ezik. Efkaldafak gura ezpada, be ba'afik, ostera.

Orain afte jaufle ixan dan Benzo jauna aldendu da Gipuzkoa'tik. Madrid'era juan da efki aretako jaufle ixateko asmoz. Gipuzkoafen aldez itz labanak esan dauz.

Igandez ixan ziran Portugalete'n oildalako estropadak, Bermeo'ko zoritxardunaen aldez zerbait batzeko. Txaidez-txaide ibili ziran neskatil lirañak euren sakeltxubakaz. Ain bat txindi batu zan.

María Guerrero-antzokijan batu ziran Erkaldar Ekintzakuak eta euren alderdi ofen gora-berak aztertu dabez. Azaña jaunak itzaldi luze bat egin eban bart, jaufbatzan ixan danian zer egin daun eta zer egin eztaun atzalduteko.

Madrid-aldeko auzonia dan Cuatro Caminos edo Laubidetan batzaf bat egitekuak ziran sosolistuak, baña notin geyenak euren aufka dagozala igafi ebenian etxera jaurt-egin eben.

Mataró efiko opofketea eztau ondorengo onik. Ainbat ugazaba urten dira efiilik erailgo dabezala esan dautselako. Barcelona'ko jaufliak ezin dauz gustijen aufka egin eta Madrid'eko agintarijakaz itz-egin dau zer egin leikian jakin-nayez.

Asturias'eko miatzetan artezkari ixan dan Martínez Ange jauna erail dau Lillo Callejón arkitetuak, baña gaizkiñak bere buruba be erail eban. Lillo jaunaren atak esan daunez aspaldijon lan-barik eguan bere semia ta Martinez'i eskatu eutsan.

Pontevedra-erkiko aldun-gayak onexek dira: Maura'taf Onori, García Ramos, Seia'taf Danel, Serra'taf Albontsa, Cadalso, Cambados'ko txaunburuba, Salgado, Gisasola eta Luis'taf Bifor. Arki bi dira utsiketa bata García Vidal'entzat eta bestia Maura'taf Mikel'en alderdikoren batentzat ixango dira.

Casal Catalá-etxian ixan zan batzaf-nagosija. Cambó jaunak itz-egin eban eta gixarte-arazuetan jardun zanian, sindikatoen aurka gogor ekin eutson. Lligatafen indaf erakusteko beste batzaf asko eratulo dabez.

Sevilla'ko basatijak iraundu eben gofi-gofijau jaupari zaf bat. Bere txadonetik urten zanian lau basatijak laidoka ta bafeka ekin eutsen eta azkenian zigorkada batzuk emon eutsezan. Gexotetxera eruan eben jaupari zafa.

Sevilla'ko urijan olantxejokotuk dira alderdi gustijak: lugiñak eta zafontzaliak: efadikala eta mauratafak; Kuministak bakafik; sosilistuak be iñoren laguntza-barik. Efkaldaf Ekintza luak eztira agertuko auteskunde oneitan.

Santander'eko eskumafak be auteskundietan garale urtengo diralakuan dagoz. Valiente'taf Joseba Mirena, Fuentes Pila, Sais Rodríguez eta Pérez del Molino jaunak dira euren aldun-gai. Boskafen tokija zafontzaliai emongo dautse.

Gil Robles jaunak itzaldi bat egin eben igandez. España'n ixan jasan ei-daikiez gaizkiñak eta separatistak. Abeftzale gustijen aurka gogor jardungo dabela atzaldu dau, abefijaren batasuna triskatu nai dabelako. España'ko eskumafak zer gura daben ba-dakigu.

Teruel-inguruko eftxu dan Minjalvo'n zezenak dirala-ta efi osua matxinada para da. Eftzañak eldu ziranian tiroka urten yakezan efiko gustijak.

Udazkena

IRAMENDI

Udazkena saftu zaigu
ego-aizeren menpean.
¡Oi zein gozaro geraden
mendi-ganeko pakean!

Zugaitzan dabiltz tizeak
ofi denak kukunlatzen:
eguzkiaren ufeak
pixka-pixkaka molteltzen...

Kantatzen dute txoriak
ta jausten dira ofiak.
¡Il beafa dan ituna
itzal daudenen mendiak!

Oritu zaiguz artuak
abafak daude dardari.
Lastef eztegu ikusiko
txori polita kantari.

Mendiak eta zugatzak
asi dira samindutzen.
¡Gauza gustiak zaudete
udabefiri itxarotzen!

Zuek ixango dezute
udabefi txit pozkofa.
¡Nere gogoko udazken
ez da biurtuko lora!

Erlojuak ondo ta merke atonduten dira, bai- bafijal saldu be.
Olealdekoa'tar Danel
Artekalle, 40.—Bilbao.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono. 154. TOLOSA

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay, 18 bis, 2.° - DONOSTIA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE
EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

Euzkotar umien aldeko

"Beaf diran gauza gustiak efiten elia iluna edo akazduna ba'da, eta eliarena gizonena baizik. Ele gustiak kiak izango dira gizonak adimen ba'dute"

Juan Amós Comenio
(Didáctica Magna)

Orain afte esan detanakin gauza bat argi ipiñi nai nuke, Euzko-Ikaskuntzak nai duan gauza bat azaltzeko.

Euzkeldun umeak, euzkelduna dalako ez du berez gaiztasunik edo jakintzatarako eragozpenik, ez eta ikasi eziñik ere.

Jakintza gauzetarako gaiztasuna datofkio, bere ama-izkuntzan edo bere aitaftez ez erakustetik, au da: efderaz erakustetik.

Beste gauza bat ere esan beaf det eta gauza au nun nai bayeztuko det: Euzkeldun umetxoakin ez dala Ume-izti edo Pedagogia'ren legerik betetzen.

Nunbait, gu euzkeldunok, beti Legetik kanpora afika ta makila erabiltzekogera.

Ni beti gauza onen aufka nago, eta nola jakintzaren bafuan eta Ume-izti edo Pedagogia'ren bafuan, iñofk ezin gezurtatu neikean, ez det iñoiz ikufin au gezurtatu eratxiko:

Euzkeldun umiai euzkeraz, efdeldun umiai efderaz erakusten zayon eskolako-berarekin.

卐 卐 卐

Nik badakit irakaslari askok, euzkeldunak izan afen, eskubide onen azpiko zoirik ipiñi ezin da zer kirtenkeri esaten dituzten.

Euzkeraz ezer ezin erakutsi leikiala ta, euzkera ez dala gai jakintza gauzetarako ta, euzkera, etxe bafuan da, basefian da, sendiakin itz egiteko bakafik gauza dala, abaf, eta abaf.

Nik oyeri gustioi auxe erantzuten diotet.

Begira: Orain gizaldi batzuek, jakintza gayak elade-eraz eta lateraz bakafik erakusten ziran Europa'n, alaxen ikusi zalako eta alaxen oitura zalako.

Eta Zenbakiztia, ta Luteliztia, eta Jakintzaren beste abaf, gustiak efiartzan, edo efiaren elean, au da alemaneraz, pantzeraz efderaz eta abaf, erakusten zirala lenengoz esan zutenak zorotzat aftu zituzten.

Denbora ayetan alemanera, pantzera ta efdera basefietan, eta etxe bafuan sendian bakafik erabiltzen bai ziran!

Ikastola Nagusi edo Universidadietan efijen izkuntzarik etzan saftu oraintsu, saftu beaf zuala entzuterik ere etzuten nai irakaslariak batez ere.

Ezin zeikean gauza zan ori.

Latera izan ezik beste ele guziak basatiak ziran.

Eta ele basatiak, ¿nundik izango ziran gai Jakintza gauzetan erabilteko?

Ezin zeikian gauza ¿e? Ya, zuazte gauf egunean Deutchland'eko Ikastetxe nagusietara, ia aleman-elia (basati-elia) jakintza gayetan erabilteko gauza dan edo ez dan ikusitera.

卐 卐 卐

Beste gauza bat. Umien aftean bizi ez danak, eta nof bera uf oyetan bizi ez danak, ezin igefi lezake ume euzkeldunen buruetan zer naste-bofaste sortzen efderaz erakutsitako gauzak bide diralarik.

Ez det esan nai euzkera besterik ez dakiten umiai efderaz erakustetik sortzeran nastiak, ez.

Euzkera bakafik dakiten umiai efderaz zerbait azaldu ezkero, ezef ez da ezer eta len bestian gelditzen da.

Esan nai det efderaz zerbait dakitela uste izan-afen, euren ama-elia euzkeldun umiai efderaz erakustetik sortzen diran gogai okefak.

AŔITOKIETA

ERRIJETATIK

SORALUZE

ERAILKETA LOTSAGAŔI BAT.—Asteazken afatsalde beranduan zabaldua da izpafa "Ezozi" baleran neska gaste bat norbaitek il da utzi dabela.

Gertakizun au adirazo aufetik esan daiguzen bi itz argibiderako. Il onen 5'gn., osteguna, gabeko ordubatean gau efizañak aitzen emon daben lez. Santa Ana kalean gizon bizartsu bat gogofa bere itxuraz, bakaf bakafik aurkitzen zan. Efitafen bat dalakotan uferatu ta galdetzen dio zer nai daben. Erantzunik bage nabaitzen dio eskuan aizto aundi bat dabela, eta uste izanik efizañak lapufeta edo beste ofelako zerbaiten zaintzale zegola eta lagunak ere izango zituala, berealaxe zuzendu zan bafi emotera txapel okef edo guardia zibilen kuartelera.

Aldi gutxiren bafuan kaleratu ziran iru hikoiti txapel okef Baita ere aztartu bastafik asko efizañak lagundurik, baña etzuten aurkitu gizonik. Beraz oso ilun gelditua da gauza.

ASTEAZKENEKO ERAILKETA. — Afatsaldeko lauterdiak inguruan, Oregi'taf Jone, 12 ufteko neskatxa ila aufkitzen da. "Iribe" dertzayon basefikoa da eta ganau zain zegon etxetik zerbait ufinduta.

Lenengo izpafa era onetan zabaldu zan; neskatxa ofek ikusi eban gizon trakets, bat eskuan aiztoa dabela beregana zetofela, asi da igeska neska eta estroposo egiñik lufera jausita une ortan afapatsen dau gizon trakets ofek.

Neskatxak une lafi ortan oyu batzuk egiten ditu "Ama-Ama" esanaz eta oyu ofetara an inguruan aurkitzen zalako berialako baten juan zan "Arteaga" basefiko mofoya, Zuazo'taf Jon, 18 ufteko gastea.

Zuazo mutil onek patxara aundiz esaten jardun dau ainbat deklaraziñotan epaikaritzako gizonei eta edozeñeri "Ama-Ama" oyuak entzun zituala eta tokira, deadaf lafi ori etofen aldera zijuala, itxumustuan bidean onuntz etofen gizon gogof, bixaf luzedun eta ilea ere luze ta oso nastua eban batekin tope egin ebala. Gizon ofek eskuan aizto aundi bat ekafela eta baita soña ta esku odolez loituak. Alkaf jo ebenian jausi zitzayola aiztoa lufera, une aftan berak, mofoyak, emonik golpe batzuk. Bafiro jabeturik aiztoaz gizon ori gutxi gora bera itz onek esan eutsazela erderaz. "Aldi gutxiko bizia dek ik ere".

Ondoren lafitasunik aundiñaz bizkorka zerbait gauza txafa gertatzen dala-ta izpafa emotera juan zala neskatxaren etxera, "Iribe,,'ra.

Befi ofekin mofoya agertu zanian etzan aurkitzen aitarik etxean, baña ama beste ausoko batzukin batian umearen eriotzako tokira eldu da. Amak berberak jaso dau lufetik alabaren gorputz ila. Bereala agintariak, epaikari, abade, sendagile ta abaf ere eldu ziran.

Gorputz ila bertan gabean zortzirak aufez jaitxi zan kanposantura ufengo egunean "autopsia" egiteko. Beraz, erailketa egin zan egunа gustiz eskutapenez josita aurkitzen zan

"Arteaga,,'ko mofoya zan bakar-bakar zerbait zekiana eriotza ofetara. Ainbat aundiz eta mila aldiz berak esaten zuen bezala, urte inguru dituan gizon bixafduna, bi kets, gogof bat, eskuan aiztoa, eta ama-elia euzkeldun dua eban batekin bufukatu zala eta ondoren ziñisturik oyeratu zan gizon-ziak ziñisturik oyeratu zan gizon gogof bat, bixafduna, eta gunori lastef jausiko zan itxaropenez doaz.

ERAILKETA ONDORENGO-NA.—Afatsaldetik egiña gorpuaren "autopsia". Egintza onen ondoren epaikaritzako gizonak sendotuta irtetzen dira batzuk beste ez dirala mofoyaren gustiak, eta bera Zuazo'taf Jon'la eraile bakafa.

Erabakita gelditu da eriotza eman aiztoaz egiña baizik egufaren gogora bera oindiño be mutila bixafduna gizon bixafduna gora eta bera.

Azkenengo aldiz eriotza gertatu dan kira eruan dabe ta bertan ainbeste deklaraziñoak, esatetik esatera zuzen-yago sendotzen dira entzuleak bere ez dala efuduna.

Afatsaldeko seirak inguruan eman kalera zuzen juanik epaikaritzako ta emen bafuan ziran notin geyenak at atara ondoren, bi iru bafuan batu rala berialako baten aitoftzen dira dala. Zeetasunik askokin ere bai baltza.

IKUSI LITEKE GASTE ONEN TXARA.—Ezta izan makufa gaztetzen matzen mofoi au. Asierau aitatzen gau efizañari aufeko astean irtetzen zon ez ezaguna dala-ta matasaren aria edefto antolau izan dau.

Ikusi liteke zenbateraño patxara daben; neskatxa ildako egun ortan, zian beraren erara gauzak kontatzen dun dan neska ilaren gurasoen etxera.

Ufengo goizean ostera, azkatzaren zan ezkero aftian, kalerik kale esaten tzen ezer ez balitz lez. ¡Ori Bizkaia!

Amaitzeko; Oregi'taf Jone, 12 urteko alaba, "Arteaga" basefiko mofoyak, Zuazo'taf Jone'k. 18 ufte ditu ere, Ernanikoa degu.

¿ERIOTZAREN ZEGAITIA? ere garbi dago; aragizkeriko gaixotasuna giña. Beraz gai lizuna, obe izkiladu, koei geure atsekabea.

DRIS-DR

FONDA RESTAURANT LA ESTRELLA de RUFINO DE MENDIZABAL
Abonos:
30 COMIDAS, 90 PESETAS
Sopa, tres principios y postre
María Muñoz, número 6. Tfl. 2
(Enfrente de la Audiencia)

Léase EUZKADI